



**ONDARROAKO UDALA**

**UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA**



**Batzarra:** Udalbatza eratzeko Udalbatzarra  
**Deialdia:** Lehena  
**Eguna:** 2019-06-15  
**Ordua:** 11:00 - 11:16  
**Tokia:** Kofradi zaharra

**Bertaratuak:**

- .-ZUNBELTZ BEDIAUNETA IBAIBARRIAGA.
- .-ENERITZ BASURKO PAGOAGA
- .- ARANTXA ATXURRA ARANGUREN
- .- IRINA ALKORTA BEDIAUNETA
- .- NAGORE BADIOLA ALBERDI
- .- PEDRO LASARTE IPARRAGIRRE
- .- MARIA DOLORES ETXANO VARELA
- .- AITOR BASTERRETXEALBERDI
- .- ADINA CARRIL AZKARATE
- .- MARIA ROSARIO IRIÓNDO LEJARDI
- .-ADRIAN OSA IBARLOZA
- .- GORKA BADIOLA ETXABURU

**Ez bertaratuak:**

- .- ARITZA ARISTONDO NATXIONDO

**Jarduneko Idazkaria:**

- .- GORKA LAUZIRIKA URBERUAGA

Ondarroan, 2019ko ekainaren 15an, 11:00etan, bildu dira zinegotzi hautetsiak, Ondarroako Idazkariak eta Kontu-hartzaileak lagunduta, Udalbatza berria eratzeko helburuarekin 2019ko maiatzaren 26ko hauteskundeetan lortutako emaitzen argitan. Era horretara beteta geratu dira lege-xedapen hauek: Hauteskunderen Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195 eta 196. artikuluetan xedatutakoa eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 37. artikulua, Tokiko Entitateen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko Araudia onartzekoa. Eta, hortaz, tokiko korporazioko kide guztiak berriztatu egingo dira.

## **1. ADIN-MAHAIA ERATZEA**

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. atalak dioenari jarraiki, zinegotzi-agiriak Idazkariari eman ondoren, bertaratutako zinegotzietatik zein den gazteena eta zein zaharrena aztertu da, bi zinegotzi horiek Adin-mahaia osa dezaten, udal-idazkariarekin batera.

Adin-mahaia era honetan eratzea:

Zinegotzirik helduen, Agurtzane Iriondo Lejardi, Mahiko presidentea izango dena.  
Zinegotzirik gazteena, Aitor Basterretxea Alberdi  
Jarduneko Idazkaria, Gorka Lauzirika Urberuaga



Agurtzane Iriondo Lejardi andreak hitza hartu du hurrengo adierazteko:

*"Egunon danoi,berba batzuk bakarrik, esateko ohore bat dala nitzat, zarrena nazalako badabe, mahai hontako buru izatea. Ohore bat ze gure herrixak, ondarruk, aukeratu gaitu bere ordezkari zuzenak, garbixak eta gardenak izateko eta neuri egokitu gazta lehenengo berbak esatea gure herriko izango dan alkati aukeratzeko osotu dogun mahai honetan.benetan ohore bat "erretolazan", etxebarrin jaio, hazi eta hezi dan ondarrutarra nazen aldetik. Eskerrikasko ba, eta suerte on bat euki daigula guztiok, gure ordezkartzako gorabera guztietan"*

## **2.- KREDENTZIALAK EGIAZTATZEA**

Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udaletxera bidalitako ziurtagiriak eta zinegotzien kredentzialak bat datozela baieztatu da, eta baita ere zinegotziak aitortenak egin dituztela ere.

Hona hemen, bertaratu diren zinegotzien zerrenda:

- .-ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA (EH Bildu)
- .-ENERITZ BASURKO PAGOAGA (EH Bildu)
- .- ARANTXA ATXURRA ARANGUREN (EH Bildu)
- .- IRINA ALKORTA BEDIALAUNETA (EH bildu)
- .- NAGORE BADIOLA ALBERDI (EH bildu)
- .- PEDRO LASARTE IPARRAGIRRE (EH bildu)
- .- MARIA DOLORES ETXANO VARELA (EAJ-PNV)
- .- AITOR BASTERRETXEA ALBERDI (EAJ-PNV)
- .- ADINA CARRIL AZKARATE (EAJ-PNV)
- .- MARIA ROSARIO IRIONDO LEJARDI (EAJ-PNV)
- .-ADRIAN OSA IBARLOZA (EAJ-PNV)
- .- GORKA BADIOLA ETXABURU (EAJ-PNV)
  
- .- ARITZA ARISTONDO NATXIONDO (EH bildu) jauna ez dago batzarrean

## **3.- KORPORAZIOAREN ERATZEAREN ADIERAZPENA**



Zinegotzien gehiengo osoa osoko bilkuran dagoela, eta bertaratu diren zinegotziek beraien karguak hartu ondoren, Udala eratutzat jotzen da.

Jarraian, hiru agiri hauek aurkeztu zaizkie Udalbatzari, zinegotziek azter ditzaten:

- a) kutxako kontaktetaren agiria;
- b) Udalak dirutan nahiz baloretan dituen izakinen egiaztagiriak
- c) udal-ondarearen inbentarioa.



#### **4.- ALKATEA AUKERATZEA.**

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. atalari jarraiki, idazkariak alkatea aukeratzeko baldintzak gogorarazi ditu:

- 1.-Zinegotzi diren zerrendaburuak dira hautagai.
- 2.-Lehen bozketan, zinegotzi guztien gehiengo osoa lortzen duena izango da alkate.
- 3.-Horrela ez balitz, udal hauteskundeetan gehien bozkatutako zerrendako buru den zinegotzia izango da alkate.

Hauek dira euren burua alkatea izateko aldarrikatu diren batzarkideak:

- ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA jauna.
- MARIA DOLORES ETXANO VARELA andrea.

Bozketari ekin zaio eta zenbatu dira emandako botoak .Hona hemen, bozketaren emaitza:

- Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarrriaga jaunaren aldeko botoak: 6
- M. Dolorea Etxano Varela andrearen aldeko botoak: 6

Horrenbestez, bozketaren emaitza ikusita, zinegotzi kopurua 13 denez eta aldeko botoen gehiengo osoa ez denez lortu, udal-hauteskundeetan gehien bozkatutako zerrendako buru den zinegotzia izango da alkate.

EUSKAL HERRIA BILDUK gehien bozkatutako zerrenda denez (HB Bilduk: 2.383; EAJ-PNV: 1.927) ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA jauna EH Bilduko zerrendaburu, izendatua geratzen da Ondarroako Udalbatzako Alkate-Udalburu.

#### **5.- ALKATEAREN KARGU HARTZEA**

Ondoren, ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA jaunak onartu egin du alkate izatea.

Adin-mahaiko presidentek eman dizkio karguari dagozkion ezaugarriak (alkate-makila) eta, handik aurrera, ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA jauna da gelako presidentea eta, horrenbestez, Adin-Mahaia desegin da.

Segidan, Alkate jaunak hitza hartu du hurrengo esateko:

*Gaur ohore handi bat da nitzako Ondarruko alkati ixentata ixati, Eskerrak nahizet emon herritxarrai beste behin be EH Bildun jarri daben konfixantzixiatxik. Udalea lan talde barriaz gatoz, udaleko esparru desberdinetan gogotsu lanean jarduteko; berdintasuna, kirola, kultura, ingurumena, aniztasuna, hirigintza, hezkuntza..., batzorde desberdiñan bitxartez herritxarrakin batea lana engou, ze "Herrixantzat lan etxik eztauke zentzolk herritxarrakin etxen ez bada". Gaur hamen falta douzen herritxarrak be nahi neuke aipatu, espetxin eta ihesin dazelako, Asier, Aitzol, Ibon eta Anartz, normalizaziñoi bateako bidin*

*jardungou zeuek lehen bait lehen etxin egoteko, geuz egoteko eta herri honei istorikoki ukatutako eskubidin alde engou. Lau urteako badakau zeregiñe, Ondarru hobe bat merezi douelako. Gora Ondarru!*

Segidan, Alkate jaunak hitza eman die udalean ordezkatura dauden hautagaien ordezkari, eta Maria Dolores Etxano andrea hitza hartu du hurrengo adierazteko:

*Zorionak, Zunbeltz, eta sorte ona.*

*Ez dira ezin errezak azken lau urteak, eta datozen urteetarako erronkak handiak dira, horregaitik, ondo asmatzen dizenak eta ondo egiten dizenak, ondarrutarren bizitza hobetzeko izango dalako.*

*3 idea edo 3 hausnarketa: Gaur emen gazenok, Aritza falta da, gaur, bakotzak gure arduetatik baine danok herritarren ordezkariak izango gara eta hori ardura handi bat da.*

*Lehelengoko ideia/hausnarketa: Gure konpromisoa. Orain arte egindakoa. Bardina izango da. Gure oposizioa eraikitzailea izango da, konstruktiboa. Herrirako ona danean gu bertan egongo gara eta kritika egin behar badogu proposamen batez egingo dogu.*


*Bigarren ideia: Eskatera bat. Agurtzanek esandakoa. Izan Ondarrutar guztin Alkatea, eta Udala izan daitzile danon Etxea. Eta bat konkretoa, martxan jarri batzorde guztiak bultzatzeko parte hartzea eta elkarrizketa. Ondarrun asko dalako egiteko.*

*Hirugarren ideia: Jarrita ikusten dot izandako Alkateak eta Zinegotziak. Aurretik izan dozue zuek guk gaur guk hartzen douen ardurak. Batzuk lehen aldiz hartzen dabe eta beste batzuk barriro hartzen dogu. Zuei guztioi, Eskerrik asko egindako biharragatik, eta herrirako erakutsitzako konpromisoagaitik.*

*Amaitzeko, hasieratik barriro. Zorionak, Zunbeltz, eta sorte ona.*

Horrenbestez Alkate jaunka hitza eman die herritarrei eta adieazpen gehiagorik ez dagoenez, bilkura amaiturik, agiri hau egiten dut lehendakariaren oniritziarekin, esandakoa eta erabakitakoa jasotzeko.

IDAZKARIA



ALKATEA

